



GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

ALKATETZAREN 41/2020 DEKRETUA

Ikusita 2020-00113 espediente-zenbakia, eta kontuan hartuta egokia dela irabazi asmorik gabeko Gizarte Etxea Zentro Soziokulturala Elkarteari (IFK: 95255055G) dirulaguntza ematea Gizarte Etxearen eraikinaren mantentze-gastuak ordaintzeko eta Kanala auzoko eta Gautegiz Arteagako herritarrentzako kultura-jardueren gastuak ordaintzeko. Espedientean egiaztatu dira deialdi publikoa egitea zailtzen duten interes sozialeko eta publikoko arrazoiak, behar bezala justifikatuak.

Gertaera_ Gizarte Etxea Zentro Soziokulturala Elkartea irabazi asmorik gabeko elkarte bat da.

Gertaera: Kreditu nahikoa eta egokia dago, eta 3.000 euroren atxikipena egin da kontabilitatean 334.48101 aurrekontu-aplikazioaren kargura "dirulaguntza zuzena Kanalako Gizarte Etxea Zentro Soziokulturala Elkarteari Gizarte Etxeagatik".

Ikusi dira udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzaitzak egindako txostenak.

Oinarria: Alkatetza honek dauka, espedientean jasota dagoen moduan, dirulaguntza emateko eskumena.

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Dirulaguntza zuzena ematea Gizarte Etxea Zentro Soziokulturala Elkarteari (IFK: E95255055G) Gizarte Etxearen eraikinaren mantentze-gastuak ordaintzeko eta Kanalako auzoko eta Gautegiz Arteagako herritarrentzako kultura-jarduerak egiteko gastuak ordaintzeko. Zenbatekoa 3.000 euro izango da, eta 334.48101 aurrekontu-aplikazioaren kargura egingo da "dirulaguntza zuzena Kanalako Gizarte Etxea Zentro Soziokulturala Elkarteari Gizarte Etxeagatik". Dagokion kreditu-atxikipena egin da bertatik.

BIGARRENA.- Erakunde onuradunak bere gain hartutako honako baldintza eta konpromiso hauekin ematen da dirulaguntza:

A) DIRULAGUNTZAREN XEDEA ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA:

Dirulaguntza Gizarte Etxea Zentro Soziokulturaleko Elkartea (IFK: 95255055G) finantzatzeko emango da, Gizarte Etxearen eraikinaren mantentze-gastuak ordaintzeko eta Kanala auzoko eta Gautegiz Arteagako herritarrentzako kultura-jarduerak ordaintzeko. Guztira, 3.000 euroko dirulaguntza izango da.

Gizarte Etxea Zentro Soziokulturaleko Elkartek Gizarte Etxea eraikina mantendu beharko du eta, hala badagokio, Kanalako auzoko eta Gautegiz Arteagako herritarrentzako kultura-jarduerak egin beharko ditu.

Gastu horiek berariaz justifikatu beharko dira ebazpen honetako f) apartatuan jaso den bezala.

Justifikatu beharreko araztutako gastuen zenbatekoa, gutxienez, 3.000 eurokoa izan beharko da.

Araztutako gastuak lortzeko, gastuen kopuruari xede bera edo antzekoa ordaintzeko beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzekin lortutako diru-sarrerak kenduko zaizkio.

B) HELBURUZKO IZAERA ETA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA:

Dirulaguntzaren helburuzko izaera dela eta, funtsak ezin zaizkie aplikatu lehenengo atalean adierazitakoa ez den helburu edo izaera bateko gastuei.

Dirulaguntza hori xede bera duten eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarria da, baina jasotako funtsek ezin izango dute inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

C) ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Entitate onuradunak ezarritako betebeharrak guztiak bete behar ditu, bai eta dirulaguntza honen onuradun gisa exijitu ahal zaizkionak ere (indarrean dagoen legeriak xedatutakoarekin bat etorrituz):

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan – Alderdi politikoen ekonomia- eta finantza-jarduera kontrolatzeari buruzko martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoak emandako idazketan – onuradun izaera lortzeko ezarritako debekuetako batean ere ez egotea, eta, bereziki, egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzatik eratorritakoak.

- Dirulaguntzaren xedea atalean adierazitako jarduketa-ildoak eta helburuak betetzea eta hori egiaztatzea, dagokion justifikazio kontuarekin eta jarraian adieraziko den moduan.

- Udalari jakinaraztea, gehienez ere hilabeteko epean, jarduera horiek finantzatzeko beste dirulaguntza edo helburuzko laguntza batzuk eskuratuz gero.

- Dagokien udal zerbitzuek egin ditzaketen finantza-kontrolako eta jardueraren egiaztapen eta jarraipeneko jarduketan mende jartzea.

Emandako dirulaguntza zabaltzea, udal honen logotipoa txertatuz paperezko edo webguneko argitalpenetan eta antzekoetan.

D) ORGANO KUDEATZAILEA:

Dirulaguntza honen organo kudeatzailea Idazkaritza Zerbitzua da. Beraz, emandako dirulaguntzari lotutako izapide oro —jarraipena, justifikazioa eta egiaztatzea— aipatutako organo kudeatzailearen bitartez egin behar da.

E) DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEA

Dirulaguntza hori honela ordainduko da:

Dirulaguntza honen ordainketaren % 100 hilabeteko epean ordainduko da, dekretu hau ematen denetik aurrera zenbatzen hasita: 3.000 euro ES42 0081 4308 1900 0101 3304 kontu korrontean. Titularra: Kanalako Gizarte-Etxea, Gizarte Etxeagatik (IFK: 95255055G).

F) JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA:

Dirulaguntza osorik justifikatzeko epea 2021eko urtarrilaren 29an amaituko da. Hala, organo kudeatzaileari aurkeztu behar zaio egindako gastuen justifikazio-kontu bat, honako hauek jasoko dituen:

a) Ebazpen honetan ezarritako baldintzak bete direla frogatzen duen memoria. Memoria horretan, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazi beharko dira.

b) Diruz lagundutako jardueretatik eratorrita egindako inbertsio eta gastuen zerrenda xehatua, honakoak identifikatuz: hornitzaileak, fakturak, horien zenbatekoa, igorpenaren data eta, hala badagokio, egindako ordainketa. Fakturen kopia bat erantsi behar da.

c) Honako hau jasotzen duen adierazpena: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan —Alderdi politikoen ekonomia— eta finantza-jarduera kontrolatzeari buruzko martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoak emandako idazketan onuradun izaera lortzeko ezarritako debekuetako batean ere ez egotea, eta, bereziki, egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzatik eratorritakoak.

d) Halakorik balego, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste administrazio publiko batzuen beste dirulaguntza batzuk badaude, zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira.

e) Halakorik balego, udalaren logotipoa txertatuz argitalpenetan, esku-orrietan, informazio paneletan, webgunean eta antzekoetan egin den publizitatearen dokumentu-kopia.

G) ITZULTZEA

Dirulaguntza itzuli beharko da onuradunari ebazpen honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluaren (36.tik 43.era arteko artikulua) xedatutako egoerak gertatzen badira.

H) APLIKATU BEHARREKO LEGERIA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA:

Ebazpen honetan aurreikusi gabeko guztian aplikatuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onetsi zuen uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta dirulaguntza publikoak eta administrazio prozedura arautzen dituen tokiko araudiko gainerako legeria.

I) JAKINARAZPENAK:

Dirulaguntzaren xede diren jardueretan eta publizitatean beren-beregi jasoko da Gauegiz Arteagako Udalaren laguntzaz egiten direla.

HIRUGARRENA. - Ebazpena dirulaguntzaren erakunde onuradunari jakinaraztea.

Gauegiz Arteagan, 2020ko martxoaren 20an.

Alkatea

Nire aurrean

Idazkaria